



**Helduen Literatura**

*Tractatus*  
Jule Goikoetxea  
Susa, 2014

## Mozorroa erantzi

JULE GOIKOETXEARENtzat humanitatea da zentzu-gabekeriaren gainean zuzen, tente ibiltzeko sofistikazio bat. Lerro zuzenari jarraitzeko ezgai, liburu bat idatzi du trinkoa eta tapitua, bihotzera baino burura apuntatzen duten jaurtigaiak botatzen dituen. Topikoak eta paisaia ezagunak alde batera utzi eta poesia bitala eta gartsua idatzi du. Arriskatu egin du, eta kontzeptualki berritzaileak begitandu zaizkit *Tractatus* honetako hainbat hausnarketa liberatzaile. Batzuetan ematen du tratatu logiko-filosofiko bat poesiaren baliabideekin eraikia, arean ezkorra baina errenditzen ez dena. Aitaren heriotzak eta inoiz desagertzen ez den maitasunak utzitako hutsunea ulertzeko modu bat ere izan ei da *Tractatus*, Tomas Goikoetxeari amultsuki eskainia.

Idaztearen –bizitzearen beraren– pribilegioa ospatzeko modu bat eta galdera sakonak egiteko aitzakia, biak dira era berean *Tractatus*. Eta jarraitzen ez badituz betiko bideak? Eta egiten badut zer edo zer desberdina? Eta etika berriak estetika berria beharko balu egoki espresa gaitezen? Erosokeriaren eta anesthesiaren kontrako mendeku literario legez, topikoak ez du lekurik liburuan: “Biolentziaren/ ordena sinbolikoa/ aita da.// Amaren/ ordena sinbolikoa/ biolentzia da”.

Matriarkaturik gabeko patriarkaturik gabeko alderdirik gabeko akademiarik gabeko ezkerrik

gabeko eskumarik gabeko liberazio bat da *Tractatus*. Haziz-haziz doan liburu da, aberastuz bidaiekin, sexuarekin eta amoralitate kontziente eta militante baten zapore gazi-gozoarekin. Urrun diren lekuetara eroango zaitu poesia erdi-enkriptatu honek, gauzak zuzenean barik zeharka eta bere baitan kiribilduz esatea nahiago duen estiloarekin, sinplismorik gabe.

Ordena iraultzeko eta salaketa egiteko bide aski zuzenak hautatu ditu poetak. Zaunken antzeko erritmoa dauka berba pisutsu eta kontzeptu jasoen poesia modu honek. Lerro laburrak dira nagusi, metafisikaz kargatuak. Testu bat arina ezin lortu daiteke ordea material astunokin, eta halaberbarrez esperimientua nahasi xamarra gertatzen da, arean hotza egin zait. Horrek ez du esan nahi ez duenik perlarik oparitzen noiz edo noiz, beltz eta eder: “glaziar bat ere badaukat/ adimena bezain kolonizatua/ milaka urte eta gero/ niregain urtzea erabaki duena”. Dena dela ezkutuan geratzen dira, lastima, puzzle aberatsaren pieza batzuk, estetika hutsetik eta hitz hanpatuetatik landa gehiago arriskatu eta hiztegi xamurragoa, gura bada konbentzionalagoa, ez erabiltzearen. ■

**Igor Estankona**



## Udarako Zientziatxokoak EUREKAN!

- 3 - 10 urte
- Jangela zerbitzua
- 8:30 - 15:30
- 11 txanda



[www.eurekamuseoa.es](http://www.eurekamuseoa.es) | 943 012 478

